

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko azaroaren 30a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lizarra** • San Andres feriekin batera, hiru eraikin historiko argiztatuko dituzte gaur  
**Benito Ros** • «Trial txirrindularitzaren maila gorenean egon arren, subentzioak ez dira aski»



• OSKAR MONTERO

## Ondarea bideoan

Nafarroako

Monumentuen Katalogoa osatzeko hogei urte behar izan zituzten Nafarroako Unibertsitateak eta gure herrialdeko elizbarrutiak. Bederatzi liburukitan jaso zuten Nafarroako arte osoa; duela bost urte, berriz, katalogo hori abiapuntutzat hartuta, arte erlijiosoa filmatzeari ekin zion diozesiak. Iruñeko merindadeko monumentuak biltzen ari dira egunotan, bideoan, Video Prisma etxeko kideak. Ondarea ezagutzera emateko eta hari buruzko dokumentu grafiko bizia izateko bidea da.

# Iruñea • Euskarazko film laburren lehiaketa

**Badira zenbait urte Karrikiri elkarteak euskarazko film labur zein luzeen zinemaldia antolatzen duela Iruñean. Azken aldian film laburren lehiaketa abiatu zuten eta hurrengoan ere egingen dute. Lanak aurkezteko epea zabalik da.**

**Karrikiri antolatu duen lehiaketara lanak aurkezteko epea abenduaren 15an akituko da.**



Maria Zamakolaren *Usoa* film laburrak irabazi zuen Karrikiriren lehen lehiaketa. • EGUNKARIA

**E**USKARAZKO FILM LABURREN II. Lehiaketa Karrikiri elkarteak antolatzen du, Iruñeko Udalaren laguntzarekin, «zinemaren eremuan euskararen erabilera sustatu eta bultzatu nahian». Sarietan, orotara, 2.700 euro banatuko dira.

Lehiaketan edozein zinekoizlek eta zuzendarik har dezake parte. Egile bakoitzak nahi adina film labur aurkez ditzake.

Filmak euskarazko bertsoian aurkeztu behar dira. Filmaren euskarazko bertsoia jatorrizkoa bada, modu argian adierazi behar da hala dela, film hori euskarazko jatorrizko bertsoiaren sarirako kontuan hartze aldera. Film labur hobereenak 2.100 euro jasoko ditu (350.000 pezeta, 14.000 libera), eta euskara jatorrizko hizkuntza duen film labur hobereenak 600 euro (100.000 pezeta, 4.000 libera). Film guztiak bi sariak eskuratzeko ahal dituzte.

Filmaren iraupena, gehienez

ere, 30 minutukoa izanen da. Filmak 16 edo 35 mm-ko formatua izan behar du, eta 1996ko urtarrilaren batetik aurrera eginikoa izan behar du.

### Abenduaren 15a arte

Lehiaketarako proposamenak Iruñeko Karrikiri elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira, abenduaren 15a baino lehen. Parte hartzeko, filmaren bideo kopia bat (VHS-PAL edo DVD 2 Esparrua sistemetan) eta izena emateko fitxa aurkeztu behar dira, aipatutako epearen barnean, ondoko helbidean: Karrikiri Elkarte, Xabier Kalea,

2 bis-behea; 31001 Iruñea, Nafarroa. Horretaz gain, filmaren bost argazki ezberdin, zuzendariaren argazki bat, gidoiaren sinopsia eta filmari buruzko gainerako infomazio materiala ere aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 948-222589 telefonora edo idatzi [karrikiri@teletel.es](mailto:karrikiri@teletel.es) helbide elektronikora.

Jasotako film labur guzien artean, gehienez bederatzitik aurreratu dituzte, eta horiek Karrikiri Elkarteak eta Iruñeko Udalak 2002. urteko lehen lauhilekoan antolatuko duen Euska-

razko Zinemaren Jaialdian emanen dituzte. Aurkezten diren proposamenak aztertzeko eta Jaialdian zer filmek hartu behar duten parte erabakitzeko, batzorde teknikoak eratu da.

Jaialdiaren sariak banatzeko, jakitunen epaimahaia izendatuko da. Epaimahai horrek film berrak bere balorazioa emanen du, eta film saridunak zein izanen diren zehazteko, bere balorazio hori publikoak film bakoitza ikusi ondoren emanen duen puntuazioarekin osatuko da, biak proportzio berean.

→ Asier Azpilikueta

## Iruñea

**Anaut, Larretxea eta Goñi egile berriak saritu dituzte**

IRUÑEKO UDALAK ANTOLATUTAKO Egile Berrientzako Literatur Lehiaketako irabazleak nor diren jakinarazi du epaimahaia. Narrazio laburren atalean David Anaut nagusitu da, Auzoak lanarekin; bigarren Alberto Ladrón izan da, Caus Zenturioaren azken kasua narrazioarekin, eta hirugarren, berriz, Daniel Martirena, Guztia hautsa izan artio idazlanarekin. Ladrón irabazle izan zen iaz, eta, berriki, Irun Hiria saria eskuratu zuen idazle nafarrak.

Olerki lanei dagokionez, Asier Larretxearen Eguraldi lainotsua bildumak jaso du lehen saria, eta bigarrena, Patricia Amigoten Urpeko hiriak. Hirugarrena eman gabe utzi du epaimahaia, sari horren neurriko lanik ez duelako aurkitu lehiaketara aurkeztutakoen artean. Gauza bera gertatu da bertso paperen saillean: lehen eta bigarren sariak Oskar Goñi eta Julen Zelaietak jaso dituzte, eta hirugarrena eman gabe utzi dute.

Komikien alorrean ere bi sari banatu dituzte: lehenengoa Ameslari haurra izenburukoari egokitu zaio; Marco Delizy eta Juanjo Osés dira lan horren egileak. Bigarren saria, berriz, Jose Angel Labarrentzat izan da, Jon lanagatik.

Epaimahaia ondo lagunok osatu dute: Vicente Etxepare, Vicente Etxepare Kulturazko zinegotzia; Juanxo Urdiruz, Nafar Ateneoko; Josema Leitza, Bertsozale Elkarteak; Andolin Eguzkitza, Euskaltzaindikoa; Cesar Oroz marrazkilaria, eta Inma Errea, Iruñeko Udaleko euskara itzultzailea.

→ Edurne Elizondo

## Massilia a Caesar capitur

AITOR TXARTERINA



**B**rasilia hiru urte eskasetan eraiki zuten. Metafora harri, porlana, bihurtu zuten han egon ziren milaka langile soil, ingeniari, nagusi, arkitekto, aparejadore eta enparauk. Oscar Niemeyer arkitektoak paratu zizkion marrazkiak, eta arestian aipatu ditudan hauekin guztiak eman zituen hiru urteok. Elkarren ondoan lo egin, bazkaldu eta elekatu ziren. Inagurazio eguna heldu zen artio. Botereak kolore iluneko aurpegi eta curriculumarekin ilunago zutenak uxatu zituen, argazkia ez desitxuratzeko edo. Oscar Niemeyerrek uko egin zion inaguraziorik egoneari eta izanari.

Botafogo taldean jokatu zuen mendre trazako txori itsusiaren izena zuen inoizko futbol jokalaririk bikainena, jostalariena, ikusgarriena, apartena: Garrintxa. Ume korraren burmuina, hanka biak ezkerarantz okerturik, 's' formako bizkar hezurra, poliometrisak utzitako giza-pilda

## Brazil

izan zen historian sartu zen futbolaria. Zelaiko ertzean egiten zituen ertzean ikasirikoak, favelak bazterrean kokatuak; izkinak ere leku berean erakusten zituen txori futbolariak. Dantza, emakumeak eta alkohola bidelagun ukan zituen. Bideko hondar kilometroan, aldiz, bakardade grisean hil zen.

Chico Buarque Garrintxak eta Oscar Niemeyerrek zituzten dohainak ere bazituen. Ez du pilotarekin harreman publikoa, arkitektura ikasketak ez zituen amaitu. Baina Garrintxa bezala, amodioari egin zion eskultura bat, hodeizkoa, haizeak kulunkatzen duena hegotik jotzen duelarik. Baina Oscar Niemeyerrek bezala, berak ere konprenitu zuen etxeek emakumearen gorputzean

dutela abiapuntu eta modelo. Abestiak kontzientzia bizi-tzeko etxeak dira.

Sebastião Salgado ekonomia ikasi zuen. Ekonomia(k) sortzen dituen, sortzen zituen, sortuko zituen, sortzen ari den desoreka, zokoratze estatistikoren bertzaldean zer ote zegoen hausnartzen hasi zen, 1972an. Lurraren gainean argazki kamera batez abiatu zen. Gerotik ahalkeri ispi-lua erosi dio, ilea lastu zaigu, negarrarazi digu, ikasi beharrekoa non den seinatu digu. Argazkien bitartez.


Amazonian akatu zuten Chico Mendes, dutzatze zela-rik. Ondoren, bertze hainbat Chico Mendes hil dute. Ikuskitzen dago, baina bertze horrenbertze edo haboro eroriko dira espetxean sartzen ez diren erruarengatik. Handia da Brazil, handienetarikoa bat. Munduko bortzgarren janari esportatzailea izaki, hiru brasildarretik bi dago azpilikatuturik.

Rioko inateak? Ederrak.

Lizarra ●

# San Andres, argiztatua

Gaur ospatuko den San Andres patroia-  
ren egunaren karietara, egitarau oparoa izanen da



Orain arte ilunpean zen Hilobi Santua gauean, eta gaurtik aurrera argiztatuta ikusiko da. ● KRISTINA BERASAIN

**Mendeetako azienda feria ahultzen doan heinean, beste ekitaldi batzuk eta bitxiak antolatzen dira Lizarrako patroia-  
ren eguna ospatzeko. Aurten aipagarria da gaur iluntzeko seietan eraikin historikoen argiztapena inauguratuko dutela.**

**E**GUNA ILUNTZEN HASTEAN, bertze argi batzuk piztuko dira. Izan ere, gaur iluntzeko 18:00etan puntu-puntu Lizarra eraikin historikoen argiztapena inauguratuko dute Hilobi Santuaren alboan. Mendeetako eraikin honetaz gain, bertze bi ere argiztatuko dituzte, haien edertasuna egunez eta gauez ere sumatu ahal izateko. Hortaz, Hilobi Santuaz gain,

Santo Domingo komentua eta zubi erromatarra ere ederki ikusiko ditugu orain gauean ere.

Eraikin historikoak argiztatzeko asmoa zuen Lizarrako Udalak aspalditik. Gaurko hiru-  
rez gain, aurrerantzean bertze eraikin xarmagarriak ere argiztatuko dituzte; esaterako, San Pedro eliza, Nafarroako Errege-  
en Jauregia eta San Miguel eliza. Datorren urtean egingen da

hurrengo fasea eta 2003. urte-  
rako Lizarrako historiaren leku-  
ko diren eraikin guztiak argizta-  
tzeko asmoa erakutsi du Uda-  
lak.

Dena dela, argi hauek ez dira gaur Lizarran piztuko diren bakarrak. Izan ere, 19:00etan, Gabonetako argiztapena inauguratuko dute Sorkunde Garbieren pasealekuan. Urtarrilaren 6a arte gauero piztuko dituzte

karietan paraturiko ehunka bonbillak.

## XVIII. mendeko feria, gainbehera

Hauexek San Andres egunaren karietara egingen diren ekitaldi bi. Egitaraua, hala ere, askoz mamitsuagoa eta zabalagoa da. Astean dagoeneko hainbat ekitaldi izan dira, eta gaur herri ha-  
maiketakoa izanen da goizeko 10:30ean Foruen Plazan. Iluntzean, aldiz, Pepin Tre taldeak antzerki lan bat emanen du. Eta bihar Lizarrako Kilkarrak antzerki taldeak bere azken lana taularatuko du.

San Andres ferien egun handia, dena den, igandekoa izanen da. Orduan Lizarran mendez mende iraun duen tradizioari helduko diote goiz-goizetik Donejakue plazaren ezkien babespean: azoka feria. Izkribu zaharrek diotenez, XVIII. mendetik egin izan da feria San Andres egunean, eta lehenagotik ere egiten ziren antzeko feriak. Urte-  
tik urtera abere gutiago ikusten da egun horretan. Batez ere, zaldi, moxal, behor eta astoak ikusten dira orain. Azienda azoka ahultzen badoa ere, bertzelako ekitaldi anitz prestatzen dira egun honi eustearren. Beraz, ardo, gazta eta txekor dastatzeak, musika, dantza, pilota partiduak, eskulangintza feria, erakusketak eta kontzertuak izaten dira. Eta, igandeko egun oparoz gain, astelehenean rock akrobatikoaren erakustaldia egingen da iluntzeko 20:00etan Estellerria kiroldegian.

→ Kristina Berasain

## Araitz-Betelu ● Ekitaldiz beteriko kultur astea hasiko dute igandean

ARAITZ-BETELU HARANEKO URTEROKO KULTUR astea etzi hasiko da, eta abenduaren 8an bukatu. Astea osatzen duten ekitaldiez landara, kultur astea antolatzen duen Euskara Batzordeko kide Andoni Tolosaren hitzetan, aipagarria da «bertako jendeak kultur asteen parte hartzen duela, alde aurretiko prestaketan eta egunean egunekoan».

Igandean, Araitz-Beteluko eguna ospatuko dute Betelun. Txistulariak goizeko bederatzietan hasiko dira lanean eta herriz herri ibiliko dira goiz-soinuan. Goizean zanpantzarra eta trikitalariak ibiliko dira Beteluko

karietatik. 12:00etatik aurrera, eskulangintza erakusketa izanen da: kaikugileak, eskultoreak, saskigileak... eta taloa, nahi duten guztiak. Gainera, *Mailope* aldizkarian hamaika urtetan argitaratu dituzten argazkien erakusketa egonen da ikusgai.

Astelehenean, meza ondoren, bertako jendeak musika kontzertua eskainiko du Beteluko elizan. Eta, 18:00etan, Sanbu Teatro taldeak *Rekreoa* helduentzako antzez-  
lana taularatuko du frontoian.

Asteartean, *Everest 2000* diapositiba em-  
naldia eskainiko dute Patxi Goñik eta Iou-

len Reketak Errazkingo ostatuan, 21:30ean.

Asteazkenean, Popi eta Zaratrako pila-  
zoen ikuskizuna egonen da Gaintzako Herriko Etxean, 17:00etan. Eta 21:30ean, Arri-  
beko elkarteak, kirolaren eta osasunaren gaineko hitzaldia emanen du Iñaki Arratibel medikuak.

Ostegunean, Aralarko San Migelen inguru-  
ko kontuez mintzatuko da Jose Antonio Gorriti apaiza.

Ostiralean, Tapia eta Leturiaren kontzertua izanen da Azkarateko elkarteak, 23:00etan. Eta, larunbatean, bertako ohitu-  
ren ikastaro azkarrak egingen dituzte goizean Uztegiko frontoian, eta gauean herri afaria eta gaupasa izanen dira Atalluko tabernan.

→ Asier Azpilikueta



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Oreka / Desoreka

Xaxa gure katua da. Ez da lodia, indartsua baizik, eta hau esaten dut etxera etortzen diren gehienek «hara!, zer katu lodia!» esaten dutelako, eta ez ba, ez da lodia, indartsua da nire katua. Eta hona hemen froga bat: behin albaitariaren denda afixa handi batean gure Xaxaren antzeko katu bat ikusi genuen eta azpian Ingalaterrako arraza bat zela ziote, eta gehitzen zuten: «dagokion itxura handi eta indartsuarekin azaltzen da».

Kasu!, orduan. Ez da lodia, Britanikoa baino. Orain nire atzean dago, sofán, lotan, bere txokoa.

«Xaxa!» esan orduko bere bi begi horiak pizten dira gorputz grisaren buruan eta begietara begiratzen dit ea zertan nabilen jakiteko, ea zer edo zer eskaini behar diodan ikusteko, baina handik minutu batera-edo berriz esaten badiot

«Xaxa!» orduan apenas irekitzen dituen, eta hirugarren aldian ez ditu irekitzen ere, eta horrela egon ninteke arratsalde guztia, katuari deika, eta bera paso egiten, zeren horrelaxeok dira katuak, aizue, eta horrelaxe erakutsi dugu esperimendu soil honekin. Hau da: katuak izaki orekatuak direla eta gu, aldiz, tontolaba desorekatu batzuk. Eta hau argitzeko esaldi pisuzko bat ekarri behar dut lerrotara. Nire adiskide batek (Isabelek) unibertsoaren nondik norako guztiak esaldi batean bildu baititu:

«Denak oreka bilatzen du». Eta agian esalditxo hori txorrada itzela irudituko zaizue baina joan zaitezte zubigainera eta begiraiozue orain ibaiari, begiratu urari, pentsatu funtsean ez al den esaldi horren adibide gardena, orekaren bila doan ura = ibaia. Eta berdin gauza guztiak. Oso esaldi pisuzkoa da hori (nahiz eta lemeziko mementoan txorrada galanta iruditu). Bada, katuarena ere esaldi horren isla zuzena da. Zeren katuak, gauza guztiak bezala, orekaren bila dabilta etengabe eta ezin dute inongo trabarik edo eragozpenik agoantatu. Eta janaririk gabeko «Xaxa!» bat entzuteko gai dira, bere eskuzabaltasunean, baina bigarrenarekin jada gure desorekaz errukitzen hasten dira eta hirugarrena entzun orduko lotan daude berriz ere. Gu, aldiz (triste da), gai gara arratsalde guztia «Xaxa!» deitzen ibiltzeko, probak egitearren, esperimenduak; tontolaba desorekatuok! ●



# Eliza katodikoak

Video Prismako zuzendari Luis Amezketa Intzako eliza kanpotik filmatzen. ● MIKEL SAIZ

Nafarroako elizbarrutia herrialdeko arte erlijioso filmatzen ari da, bideo sorta osatzeko asmoz

**Nafarroako arte erlijioso filmatzeari ekin zion herrialdeko diozesiak 1996an; Iruñeko merindadeko eliza, basiliza eta beste eraikin erlijiosoak filmatzen ari dira orain Video Prismako kideak. Arduradunen asmoa da ondarearen dokumentu bizia lortzea eta ezagutzera ematea. Eliza horietako asko desagertzeko zorian direla azpimarratu dute.**

ARTEA ZUZENEAN GOZATZEKO DA, BAINA, aukera hori ez dagoenerako, bideo sorta prestatzen ari da Nafarroako elizbarrutia, gure herrialdeko arte erlijioso guztiaren inguruan. Hori ez da helburu bakarria, hau da, zuzenean ezin ikus daitekeenaren berri telebistaren bidez jaso ahal izatea; horrekin batera, eta orain arteko argazki artxioboaren osagarri, gaur egungo artearen lekuko ere izan nahi du bideo sorta horrek, betiko desagertu aurretik.

Jesus Omeñaka Iruñeko Artzapezpikutzako arte arduraduna da ekimen horren buru; duela bost urte ekin zioten lanari, azaldu digunez, eta, geroztik, Tuteran, Erriberri, Zangoza eta Lizarrako merindadeetako arte erlijioso guztia filmatu dute, bideoz. Ekimenaren ardura elizbarrutiak bakarrik hartu du bere gain, ez du erakunde publiko- en laguntzarik jasotzen. Urtero hiru milioi pezeta ingurukoa da proiektuak duen aurrekontua (120.000 libera, hor nonbait).

«Dena filmatzen dugu, eliza, basiliza, parroikia eta antzeko eraikin guztiak, barrutik eta kanpotik». Asmoa da eraikin bakoitzaren xehetasun guztiak jasoko dituen dokumentu grafikoak lortzea. Horretaz gain, salgai jartze-

Adiosko parroikia grabatzen ibili ziren urrian; erretaula da filmatutako piezetako bat. ● OSKAR MONTERO



ko hiru bideo berezi ere prestatu ditu Artzapezpikutzak, Tuterako katedralaren gainean bat, hiri horretako gainerako eraikin erlijiosoen gainean bigarrena, eta Erriberriko arte erlijiosoaren inguruan hirugarrena.

Erriberriko merindadeko lana bukatu ondoren, Iruñeko merindadeko elizak eta bestelako eraikin erlijiosoak filmatzeari ekin dio berriki diozesiak. Adiosko parroikia izan

zen lehenengoa, urrian, eta joan den asteartean, Intzan eta Azkaraten izan ziren proiektuko arduradunak, herriotako elizak filmatzen. Nafarroako Monumentuen Katalogoa hartu dute ardatz lan hau egiteko, eta, ondorioz, katalogo horren irizpideei jarraiki, merindadeka ari dira filmatzen bertan ageri diren eliza, monasterio eta gainerako monumentu erlijioso guztiak. Iruñeko bukatzeko, gutxienez beste bi urte beharko dituztela uste du Omeñakak.

### 1.000 monumentu erlijioso

Goizeko 10:30ean hasi zen eguneko lana joan den asteartean. Ordu horretan iritsi ziren Video Prismako kideak Intzara,



Intzako elizan XVI. mendeko erretaula dago. ● MIKEL SAIZ

## Luis Amezketa

VIDEO PRISMAKO ZUZENDARIA



● MIKEL SAIZ

### «Bideoa dokumentu bizia da»

ASTEARTE ETA OSTEAGUNETAN ibiltzen dira Video Prismako kideak Nafarroako herrietan barrena, arte erlijioso grabatzen. Luis Amezketa zuzentzen du lan taldea.

■ **Horrelako lan bat egiten duzuen lehen aldia da?**

Bai; ideia guk proposatu genuen, eta Artzapezpikutzak gustuko izan zuenez, lanean hasi ginen, 1996ko udaberrian.

■ **Nola sortu zen ideia?**

Nafarroako Monumentuen Katalogoa izan zen proiektuaren sorburua. Lan hori ezagutzen genuen, eta pentsatu genuen oso interesgarria zela, baina zer edo zer gehiago egin zitekeela alderdi dokumentalari zegokionez. Artzapezpikutzari dena filmatzea proposatu genion, edozein momentutan erabili ahal izateko dokumentua lortzeko asmoz.

■ **Zer eskaintzen du bideoak?**

Argazkia baino dokumentu biziagoa da. Bideoaren bidez errazago eta kalitate hoberekin filmatu ditzakegu, adibidez, oso altuak diren erretaulak. Gaur-

ko teknologiarekin, gainera, bideotik beretik argazkiak atera ditzakegu. Teletxatuko formatua erabiltzen ari gara, egun lor dezakegun kalitate gorenarekin. Ondorioz, oso kalitate oneko irudiak lortzeaz gain, gero irudi horiek ordenagailuan tratatzeko aukera ere badugu, bai eta zintak eta argazkiak egiteko ere.

■ **Nolako da lan prozesua?**

Jesus Omeñaka da koordinatzailea, eta hark erraten digu zer filmatu behar

dugun eliza, basiliza edo monasterio bakoitzean. Gu herri bakoitzeko apezarekin harremanetan jartzen gara, eta ahal badute gurekin etortzen dira filmaketa egiteko egunean, gauza bakoitza non dagoen errateko. Normala da edozein elizatako irudi edo taila jakin bat gordeta egotea, eta egun horretan gure esku uzten dute, guk filmatu dezagun. Ordena jakin bat jarraitzen dugunez, erran daiteke editatuta filmatzen dugula.

■ **Hainbat urte daramazu lan hau egiten; zernolako esperientzia izaten ari da?**

Niretzat oso esperientzia polita da hau; hasieratik erabat inplikatu nintzen proiektu honetan, eta gozatzen ari naiz. Artea oso gustuko dut, eta lan honek ematen dit aukera ezagutzen ez nituen leku asko ezagutzeko. Herri askoren egoera ezagutzeko parada ere eskaintzen dit lan honek, eta asko eta asko hutsik gelditzen ari dira, eta ondarea gal-tzen.



### Jesus Omeñaka

IRUÑEKO ARTZAPEZPIKUTZAKO ARTE ARDURADUNA

«Duela 25 urte hasi ginen katalogoa osatzen; egun, lan horretako eliza eta monumentu asko desagertu egin dira»

900 eta 1.000 artekoak da monumentu erlijiosoen kopurua gurean. «Kopuru polita da; herri txiki asko dugu Nafarroan, eta bakoitzak badu bere eliza». Monumentuon artean, Nafarroako hainbat monasterio nabarmendu ditu Omeñakak, tartean Oli-vakoa, Irantzakoa, Iratxekoa eta Leirekoa, bai eta Viana eta Los Arcosko elizak ere; ondasun higigarrien artean, berriz, Erriberako erretaula barrokoak, taila erromani-koak eta gelditzen den urregintza. «Gerretan eta bestelako gatazketan asko galdu da, baina oraindik badira pieza anitz».

### Ondarea desagertzeko zorian

Nafarroako artea ongi ezagutzen du Omeñakak, Nafarroako Gobernuak plazaratu Nafarroako Monumentuen Katalogoa osatu duen taldeko kide izan baitzen. Lan horri ekin ziotenetik, ondarea ugaria izan arren «monumentu asko galdu» direla nabarmendu du Omeñakak: «Duela 25 urte hasi ginen katalogoa osatzen; egun, lan horretan ageri diren eliza eta monumentu asko desagertu egin dira. Eta berdin gertatuko da orain osatzen ari garen bideo bildumarekin. Eliza asko dago hondatuta, desagertzeko zorian».

Egoera kaskarrenean daudenak herri txiki-tako elizak dira. «Artzibar edo Aezkoa aldeko egoera oso kezagarria da. Herriak hutsik gelditzen ari dira, eta, ondorioz, elizak abandonatu eta hondatzen dira. Tailak eta antzeko piezak Iruñeko Katedralako Museora ekartzen edo beste elizetara eramaten saiatzen gara, baina dena salbatzea ezinezkoa da».

Kontrakoa ere gertatzen da, eta, Allin ibarrean, adibidez, «elizak oso ongi zainduta daude». «Eliza herri bakoitzaren historiaren zati bat da, eta, hori dela eta, zaintzeko ar-

## Monumentuen Katalogoa: hogeitau urte eta bederatzitau liburuki

NAFARROAKO ARTE ERLIJIOSOA filmatzeko proiektuaren eskutik, hirugarrenez ari da Jesus Omeñaka gure herrialdeko eliza, basiliza eta monasterio guztien ibilbidea egiten. Aurreko biak Nafarroako Gobernuak argitaratu Nafarroako Monumentuen Katalogoa —bederatzitau liburuki, denera— osatzeko egin zituen, duela hogeita bost bat urte. 1977. urtean jarri zuten abian proiektu hori Nafarroako Unibertsitateak eta diozesiak, eta hogeitau urte eman zituzten lana osoki gauzatzeko. Nafarroako Gobernuak katalogoa abian zenean egin zuen bat proiektuarekin. «Lan handiki proiektua izan da; horren adierazgarri da Nafarroako delata horrelako katalogoa osatzea lortu duen elizbarruti bakarria. Banaka-banaka, herrialdeko herri guztietako monumentu eta eliza guztietara joan ginen, urte guztiaren zerrenda osatu eta beraz aztertzeke», azaldu du Omeñakak. Arte erlijiosoak da katalogoan ageri den gehiena. «% 20 izanen da, gehienez, arte zibilak katalogoan betetzen duen lekua».

Katalogoa osatzeko lanak hainbat alderdi izan zituen: batetik, lekuetara joan eta argazkiak egin zituzten proiektuaren parte hartu zuten adituek; bestetik, bibliografia aztertu zuten, monumentu bakoitzaren inguruan argitaratuta zegoena ezagutzeko asmoz; hirugarrenik, azterketa dokumentala egin zuten, udal, parroikia eta eliza bakoitzeko artxiobotara jo eta haiek arakatu. Eraikinak ez ezik, noski, eraikin bakoitzean gordetako piezak aztertu zituzten katalogoaren egileek, tartean erretaulak, tailak eta urregintza. Emaizta bederatzitau liburukitan bilduta dago: Tuteran eta Erriberriko merindadeei buruz bi liburuki, Zangoza eta Lizarrakoei buruz lau, eta hiru Iruñeko arteari buruz.

dura hartzen dute euren gain herritar askok. Elizak berritzeko taldeak ere sortu dira hainbat herritan».

Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiak laguntza politika bat jarri du abian azkenaldian, baina Omeñaka ez dago erabat ados. «Orain arte Principe de Viana erakundeak hainbat eraikin eta pieza zahar-berritzeko proiektuak portzentaje bat ordainduz laguntzen zituen; orain, ordea, politika hori aldatu da, eta urtean pieza bakarra zahar-berritzeko proiektua laguntzen du. Osoki ordaintzen ditu gastuak, baina proiektu bakar batenak. Ondorioz, laguntzarik gabe, eliza txiki askorentzat oso zaila da euren erretaula edo beste piezaren da zahar-berritzeari ekitea». Hemendik urte gutxira bideo-zinta batean besterik ezin izanen dira ikusi erretaula horietako asko.

➔ Edure Elizondo



# Hemen gaude euskararen alde


## Subjektua, aditza eta aditz sintagma.

Bazkalondoan mus partida jokatzeko Monte Carlora heltzen lehena izaten naiz beti. Batetik, duodeno ultzera edukitzeko oposaketak egiten ari naizelako —hala definitzen du azkar jateko dudak joera Canal 4ko ostiral gaueko saio gogaikarrian parte hartzen duen Txumari Alfaroren iguala den koinatu mediku temosoak—. Bestetik, barran eseri, Samuel zerbitzariari eguneroko kuba-librea eskatu, eta eguneko prentsa patxada ederrean —eta, bide batez, musu truk— irakurtzea gustuko dudalako.

## Baldintza eta subjuntibo.

Ostiralero NAFARKARIAN zutabea idazten dudanetik, EGUNKARIAN harpidetza egin du Samuelek, nahiz eta Gerardo ikurrina baino baskoagoa den mus bikotekidea eta biok izan euskaraz idatziriko argitalpena irakurtzen duten bezero bakarra. Harpidetzaren bideak, Jaungoikoarenak bezala, ezin asmatuzkoak dira.

**Iragan aldia.** Hori bai, gainontzeko egunkariekin egiten duen ez bezala, Samuelek Axularren hizkuntza zaharrean idatziriko egunkaria ez du sekula agerian uzten. Medikuntza pre-



Txumari Alfaro, naturista.



Jaime Ignacio del Burgo, editore erregionalista.

bentibo neurria dela dio. Kuba-libre egileak azaltzen duenez, taberna Zabalgunean dago, bezero gehienak Jesus Aizpun zenaren kintakoak eta jite ideologikokoak dira —pentsa, zenbaitzuk Jaime Ignacio del Burgo Navarra en marcha erosten dute—, eta hartara euskaraz izkiriaturiko egunkaria muturreko erregionalista edadetuon begi bistan uzteak ondorio latzak eduki litzake: paraple-

desake Abertzaleen Batasunak giza klonazioa? Ados al dago? Eta, batez ere, horretarako eskuduntzarik ba al dauka? Era horretako hamaika galdera egin nizkion inure buruari, lerroburu peko testua irakurri, AEBk orain 'Ameriketako Estatu Batuak' esan nahi duela jabetu nintzen arte. Euskaltzaindiak, nonbait, ebazpen hori plazaratu berri du. Euskalduna izatea gogorra da gero. Gogorra eta nahasgarria.

jiak, tetraplejiak, enboliak, bihotzekoak... —Samuelek gaitxotasun izen andana daki: Txumari Alfaroren zein Ramon Sanchez Ocañaren saio guztiak ikusten ditu—. Gerardoren aburuz, hain zuzen ere horregatik, Samuelek EGUNKARIA barraren erdian zabal-zabal eginda utzi behar-ko luke.

## Nork-nori... zer?

Gauzak horrela, joan den asteleheneko bazkalondoan, EGUNKARIA irakurtzen aritu nintzen, Monte Carlora barran, Samuelen isiltasuna eta kuba-librearen goxotasuna lagun. Honako titular hau topatu nuen lehen orrialdean: «Giza klonazioa baimenduta AEBn». Zur eta lur geratu nintzen, lur jota, jota. Ezin nuen sinetsi. Lerroburu berriro irakurri nuen. Berbera zen. Egunkariak tematiak dira, eta ez dituzte titularrak edonola aldatzen une batetik bestera. Ezin nuen ulertu. Nola baimen



## panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

# Zurikaldai (eta II)

Zurikaldaren (ikus joan den asteko Nafarkaria) ibileren artean, sonatuena, zalantzarik gabe, Lurdarainoko erromesaldi hura izan zen, Iruñeko Radio Requetek antolatua. Alde Zaharreko zapata garbitzaile konkorrak ez zen autobusez edo trenez joan, bere garraiobidean baizik, hots, bere karrilotxe pedaldunetan, irratiak eskatutako hiru boluntariok karroa bultzaturik. Honatx izenak: Miguel Ibarrola, Goñi herrikoa, Antonio Espartza etxauriarra eta Martin Paternain lerindarra.

Zurikaldai duela 40 urte baino gehiago joan zen erromes Lurdara, 1858an agertutako Ama Birjinak gaitza senda ziezaien. Iruñeko jende aunitzek, ordea, go-goan dauka oraindik gertatu zena. Bidairen xehetasunak Jose Maria Barogak

paperean moldaturik utzi zizkigun hiriari buruz idatzitako liburu batean.

Bada, erromesak Radio Requeten ondoan bideari lotu zitzaizkion, han bildutako jendeketa handiaren txaloen artean. Bide luze eta bihurria —tartearen Erro, Mezkitz eta Ibañeta—, hamaika egun behar izan zituzten Ama Birjinaren aurrea iristeko. «Ikusiko duzue, itzultzeko, bide berbera egiten dugun» —erraten zien Zurikak eramaileei—, «baina zuek karroan jarrita eta nik bultzaturik». Zer gerta ere, noiz-behinka laguntza emateko autoa agertzen zen, irratiak paratutakoa, baina arras ongi prestatutakoak ziren, jakiz eta ekipamenduz ederki hornituta. Konparazio batera, euria eginez gero, sekulako eurtako handia zabaltzen zuten, alimalekoa, lau gizonak aterpetzeko adinakoa. Arne-



Zurikaldai, aulki gurgildunetan, Lurdarako bidean.

giko muga, ordea, goitik behera txirriaturik pasatu zuten.

Nafarroa Beherean aitzinera egin ahal, gero eta jende gehiagok animuak ematen zizkien eta, Biarnon sartu orduko, hura izugarria izan zen, ezpondetatik konkordunak saldoka ateratzen omen ziren, denak Zurikaldaren ttontorra ukitu nahian.

Gisa horretan Lurdara iritsita, hango

gain batean atsedenean zeudela, «Hi, non zegok Zurika?»- galdetu zuen eramaile batek. «Arraioa, maldan beheiti zoaie». Halaxe zen, bai, oharkabean karrilotxe lerratzen hasi baitzen, aldapan behera zihoran, kontrol gabe, gero eta ziztu biziagoan. Ertzetik ertzerara, autoen artean, borda batzuetara hurbiltzen ari zen. Orduan, zardakoa hartuko zuela ikusita, Zurikaldai, oihuz, erregu egin zuen: «ENE BEGIKO AMA BIRJINA, GELDI NADILA NAGOEN MODUAN...». Ustekabean, karrilotxe jiratu eta horma jo beharrean, lasto meta batean sartu zen. Lurrean erdi etzanik, lasto ziriak buruan, zigarroa ezpainetan, Zurikak hasperen egin zuen: «Ama Birjinak behintzat, kasu egin zidak».

# Benito Ros

TRIAL TXIRRINDULARIA

## «Maila gorenean egon arren, subentzioak ez dira nahiko»

Orainsu amaitu da trial txirrindularitzaren denboraldia. Urte garrantzitsua izan da oso Benito Ros gaztearentzat. Euskadiko Txapelketa eta Espainiako Indoor Txapelketak eskuratu ditu, bertzeak bertze. Eta Coloradon (AEB) jokaturiko Munduko Txapelketan, berriz, hirugarren postuan geratu da.

**T**XAPELKETAK AMAITUTA, Rosi lasaiago egoteko eta omenaldiak jasotzeko tartea etorri zaio. Hala ere, txirrindua berarekin eramaten du beti, bere itzala izango balitz bezala.

■ **Orain omenaldi aunitz jaso dituzu. Zer esan nahi dute omenaldiek?**

Zure eguneroko lanaren onespea eta eskertzea dira. Pozgarria da zure ahalegina saritzea eta jendearen berotasuna sentitzea.

■ **Garaipen handiak lortu dituzu aurten, eta pozik amaitu duzu denboraldia, baina ezin izan duzu Munduko Txapelketa irabazi.**

Bai, hala da. Zapote mingotsa gelditu zait. Saillkapen proban aurrenekoa gelditu nintzen, eta finalean, uste dut epaileak ez zuela zuzen jokatu. Nire ustez, ez nuen zigortu zidaten akatsa egin. Coloradon sekulan egin dudana lasterketarik txukunena egin nuen, eta hiru punturengatik ez nintzen munduko txapelduna izan. Hurrengoan izan beharko du. Dena dela, Euskadiko eta Espainiako indoor txapelketak irabazi ditut. Urte ona izan da niretzat.

■ **Trial txapelketetan aritzeaz gain, munduko altuera jauziko marka onena zurea da; nola izan zen hori?**

Duela hiru urte izan zen, nire herriko jaietan. Hiru epaile eta notario bat bildu genituen, eta errekorra hautsi nuen. 1,70 metrotra zegoen espaloi bertikalerara jauzi egin nuen arrapala batetik jaitsi ondoren. Orain gehiago saltatzen dut, baina dena prestatzea ez da erraza izaten.

■ **Erraten dutenez, gero eta maila hobea dago trialean.**



Egia da. Irabazten dugun dirurako, oso maila handia dago. Badirudi dena ematen dugula ezerean truke. Batzuetan gertatu izaten da guk ere pentsatzen dugula ezin izango dugula probaren bat gainditu eta geroni ere harrিতa gelditzen gara pasatu dugula ikustera. Gainera, txirrindulari gazteak indarrez datoz, eta norgehiagoka gero eta handiagoa da. Txapelketetan goian mantentzea zaila da, eta egunero lan egin behar duzu hor egoteko.

■ **Dirua aipatu duzu. Goren mailan egonda, zailtasunak dituzu honetarik bizi ahal izateko?**

Maila gorenean egon arren, subentzioak ez dira nahikoak izaten gastatzen duzun diru guztiari aurre egiteko. Txapelketetan bakarrik parte hartuko banu, diru anitz galduko nuke. Erakustaldiak egin behar izaten

ditut, udan batez ere, eta hauei esker aurrera egiten ahal dut. Atzera begiratzen badugu, egoera hobean gaudela aitortu behar dugu; izan ere, orain behintzat materiala oparitzen dizute, eta horrelako txirrindua batek 200.000 pezetatik gora balio du (8.000 libera).

■ **Kirol hau ez da aski ezaguna. Zure ustez zer egiten ahal da jendeak ezagut dezan?**

Azken urteetan bultzada eman zaio. Nire eguneroko lanak, eta baita Iker Lezetarenak ere, ezagunagoa egin du kirol hau gure lurraldean. Jendeari izugarri gustatzen zaio ikusten duenean, baina aukera gutxi izaten du ikusteko, eta ondorioz, ez du aski ongi ezagutzen eta konprenitzen kirola.

■ **Nolakoa da zehazki kirol hau?**

### soslaia

Abartzua eta Irantzuko monasterioa batzen dituen bidexkaren erdian kokatua dagoen etxean bizi da Benito, bere familiarekin. Etxe ondoan zuhaitz enborrez eta auto zaharrez beterik dagoen zelaia atondu zuen aspaldi. Han hasi zen entrenatzen, bere aitaren laguntzarekin.

Jaunartzea egiterakoan oparitu zioten aurreneko txirrindua. Orduan, Ot Pi izatea zuen amets. Orain, aurreneko mailara iritsita, bera da ume kozkor ugariaren ametsa. Bere anaia gazteenak ere, Raulek, lorpen handiak egin ditu bere itzalari jarraituz.

Benito Ros Charralek 20 urte ditu, eta elektromekanika ikasketak egin ondoren, bere zaletasuna, trial txirrindularitza, lanbide bihurtu nahi du. Txapelketetan diru asko lortzen ez badu ere, udan egiten dituen erakustaldiekin sosak biltzen ditu, gero urte osoan diru aunitz ez galtzarren.

Kirol sinplea da: txirrindua eta txirrindularia baino ez da behar. Txirrindua berezia da, txikiagoa eta kolpeak jasateko prestatua dago. Txapelketa zer izaten den? Hainbat gune gainditzean datza. Lehiaketaren arabera, bost, zortzi edo hamar gune daude, hogeita eta hogeita hamar metro bitartekoak eta zailtasun ezberdinekoak. Ere mu horietan, hodiak, harkaitzak edo autoak ipintzen dituzte, eta oztopo horiek txirrinduaren gainean gainditu behar ditugu. Hanka, ukondoa edo eskua luzean jartzen badugu, zigortu egiten gaituzte; zenbat eta zigor-puntu gutxiago, hainbat eta hobeto.

■ **Zure jaioterrian, Abarztuzan, Trial Txirrindularitzako eskola abian jartzeko asmoa du udalak.**

Bai, hala da. Urtarrilean hasi gara herriko ume kozkorrekin lanean. Kirola sakonean ezagut dezaten eta berarekin goza dezaten nahi dut.

→ Kristina Berasain



## Nafar Kronika

Aitor Arotzena

### Sakana-Afganistan

Guardia Zibilak Sakanatik alde egiteari buruzko erreferendumera deitu du Utzi Bakean Sakana taldeak, eta Espainiako Gobernuko Ordezkariek Nafarroan berehala debekua ezarri dio herri kontsulta horri, beti bezala, demokraziaren izenean. Kasualidadeak edo? aginduta, aste berean ustezko ETAKideen eta guardia zibilen arteko tiroketa gertatu da Iruñeko karriketan. Duela urtebete ihes egin zegoen iruñesema atxilotu dute berdeek, eta bertzeak ihes egiteko autoa bahitu du. Eta autoa non utziko eta Sakanako herririka batean. Lehendik eltzetzuekin kokoteraino bazeuden, orain zapeletik goiti...

Aitzinetik iheslaria harrapatzen ez badute, Sakana aldean aste batez bederen lehengoa baino oraindik kontrol polizial handiagoa izanen dela iruditzen zait. Aitzakia iheslaria harrapatzea izanen da, baina aitzakia horrekin, gizarte osoa kontrolatu, beldurtu, estutu, zantatu eta mehatxatzeko aprobetxatuko dute.

Gerra guzietan gertatzen da. Afganistanen ere, Bin Laden atxilotzeko asmoarekin hasi zuten guda. Geroztik hilabeteak joan dira, eta diotenez, kasik herrialde guzian mendepean duten honetan, ez dute oraindik Bin Laden harrapatu, ez Estatu Batuetako tropek, ezta Iparraldeko Aliantzaok. Milaka izan dira hildakoak, baina Bin Laden nonbait hor dabil bizi-bizi eta xuelto-xuelto, edozein herritako bestetan jotzen duten jota edo porrusalda bezainbat. Nik dakidala, New Yorkeko dorre bixkien erorketaren errudun ez da Afganistan, ezta gobernu talibana ere. Baina beraiek dira ustez dirudun arabiar batetik egindakoa edo berak agindutakoa ordaintzen. Zergatik?

Nafar aunitzen ustez, ustezko ETAKideak Bin Laden bezain arriskutsuak izanen dira. Sakanako herriko etxe aunitz, talibanen gobernu bezain bortitza eta itxia izanen da. Emakumeak burkarik gabe ez, baina Euskal Presoak Euskal Herrira pin-ik gabe ezin izanen dira atera etxetik, horien ustez. Hortaz, berdeen eraso ez da sekulan neurritz kanpoko izanen, taliban-batasunoak gibelera bota eta gobernu demokratikoa berrezartzeko (?) helburuarekin.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Burlata:** Orbela otxoteak Axular elkartean kantatuko du gaur, 20:00etan.
- **Mutiloagoiti:** Doctor Robert bikoteak *Strawberry Beatles forever* ikuskizuna eskainiko du gaur, 22:00etan, kultur etxean.
- **Lerin:** Solbenzia Zero taldeak bere disko berria aurkeztuko du igandean, 23:30ean, Martino tabernan.

### BERTSOLARIAK

- **Arano:** Bihar, 21:30ean, bertso afaria egingen dute elkartean Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin.
- **Etxalar:** Bertso afaria egingen dute bihar Xumai Murua, Miren Artetxe, Eneritz Zabaleta eta Jose Juan Zubieta 'Etxabe' bertsolariekin.

### ANTZERKIA

- **Iruñe:** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak pilotalekuan izanen dira astelenean, 17:30ean.
- **Iruñe:** Haur programazioaren baitan, TEN Pinpilinpauza taldeak *Oz aztia* lana taularatuko du ostegunean, 12:00etan, Gaiarre antzokian.

### HITZALDIAK

- **Lizarra:** Maeztutarren inguruko jardunaldien baitan, Madrilgo Reina Sofia museoko zuzendari Juan Manuel Bonetek *Alrededor del viaducto: la bohemia ultraista madrileña* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Gustavo Maeztu museoan.
- **Lizarra:** Joaquin Cuberok *Montejurra en el marco de la violencia fascista* izenburuko hitzaldia emanen du igandean, 12:00etan, karlisten egoitzan.

### IKASTAROAK

- **Iruñe:** Abenduaren 10etik 20ra, 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduriko hiru ikastaro berri egingen dituzte Gazteriaren Etxean: ipuin kontalaria, Urte Zahar gauerako makilajea eta mikologia. Izena abenduaren 9a baino lehen eman behar da.

### ERAKUSKETAK

- **Iruñe:** Orreaga elkartean *Nafarroa aurkitzen* erakusketa igandea arte egonen da Aldezar eus-

kaltean, gaur eta bihar 18:00etatik 21:00etara, eta igandean 12:00etatik 14:00etara.

### BESTELAKOAK

- **Iruñe:** Arrosadiako haur behar-tsuei emateko jostailuak, liburuak... biltzeko kanpaina abiatu du San Fermin peñak. Eman beharrekota peñan (Gelbenzu, 13-15) edota Euskadiko Kutxaren Gaiarre kaleko aretoan uzten ahal da, astelehenean ostegunera, 18:00etatik 20:00etara.
- **Iruñe:** Aizpea euskara taldeak


antolatuta, txangoa egingen dute ostegunean Orreaga eta Donibane Garazira. Martxuetan edo kultur etxean eman behar da izena. Helduentzako txartelak 1.000 pezeta balio du, eta haurrentzakoak 500.

### oharra

#### 10 urte!

Abenduaren 6an NAFARKARIAK hamar urte beteko ditu. Hori dela eta, heldu den ostiraleko gehigarria berezia izanen da, eta hamarkada luzean NAFARKARIA bildu ditugun zenbait harribitxi eta harrikozko jasoko ditu.

JOXE LACALLE



### Erran patata!

Badira zenbait politikari egunero prentsako argazkietan eta telebistako irudietan ikusten ditugunak. Beste batzuek, aldiz, nahiago dute flashen jomugan ez izatea. Baliteke Alfredo Jaime azken horietako bat izatea. Iruñeko alkatea zenean, karguak hala eskatuta, egunero zegoen hedabideetan. Gogoratzen sanferminetako txosnen afera? Eta Mister %10 deitzen zutenekoa? Egun, ordea, UPNko foru parlamentaria da eta apenas ikusten dugun. Non dago Jaime? Zertan dabil?

Bada, gure argazkilariari esker jakin dugu zergatik ez dugun Jaime kameraren aitzinean ikusten. Eta hori hala da, hain zuzen ere, Jaime kameraren gibelean dagoelako. Jaime ez dago hedabideetan. Jaimek nahiago du bere lan parlamentarioari irudirik ez jartzea, existituko ez balitz bezala, ezkutuko balitz bezala. Hori bai, badakigu ez duela bazkari ofizial bakar bat ere galtzen. Ziurrenik, argazkiak egitera joanen da.